



“EUSKARA MERKATARITZARA”

◆ EGITASMOAREN ESKAINTZAK ◆

1.- IDATZI KOMERTZIALEN ITZULPEN ETA MAKETAZIO ZERBITZUA

Berriozarko Udalak honako **eskaintza** hau egiten dizu:

- Euskarazko testuen zuzenketa.
- Testuen itzulpena euskarara.
- Hizkuntza aholkularitza.

Zerbitzu honetaz baliatzeko **baldintza** hauek bete behar dira:

- Herrian kokatutako establezimendua izatea. Ez da pertsona partikularren itzulpenik onartuko.
- Erakunde ofizialen menpeko entitatea ez izatea.
- Idazkiak edo testuak zabalpen publikoa izatea.
- Testua, jendearean, gutxienez elebizi jartzea.
- Itzuli beharreko agiriak 1.000 hitz baino gehiago ez izatea. Urtean, gehienez, 3.000 hitz itzultzea eskatu ahal du merkataria bakoitzak. Euskarazko testuen zuzenketa kasuan ez dago mugarik.

Itzulpenak **honela eskainiko** dira:

- Itzulpena besterik ez, merkataria bere euskarrietan txertatzeko.
- Maketatuta “Euskara Merkataritzara” logodun paperetan, 3 tamaina ezberdin aukeran (DIN A3, A4, A5).

2.- ESKAINTZEN DIREN MATERIALAK

Honako material hau eskaintzen da:

- Zabalik-itxita txartela elebizi (Zabalik / Abierto - Itxita / Cerrado)
- Ordutegia
- Merkealdirako kartela elebizi (Merkealdia / Rebajas)
- Establezimenduaren ezaugarrien araberako kartelak: asteko eta hilabeteko eskaintzak, enkarguak egiteko oharrak...
- Taberna eta hainbat establezimendutan jarri beharreko aipamen legalen inpresioak.
- Harategi, barazkidenda eta arrandegietan jartzeko horma-irudiak.



3.- MERKATARIENTZAKO EUSKARAZKO KLASEAK

3.1.- ORDUTEGI MURRITZEKO IKASTAROAK

➤ Ezaugarriak

- Helburua, ahozko eta idatzizko oinarriko maila lortzea da, merkataritzan erabili ahal izateko.
- Klaseen ordutegiak dagoen eskaeraren arabera antolatuko dira.
- Mailak interesatuek eginiko eskaeren arabera antolatuko dira.

➤ Baldintzak

- Gutxienez 8 laguneko taldea osatu beharko da.
- Merkatariak %80ko asistentzia eta aprobetxamendua egitaztaten baditu Udalaren beka jaso ahalko du: matrikula kostearen %40.

3.2.- EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE OHIKO KLASEAK

➤ Ezaugarriak

- Euskaltegietako ohiko klaseak.
- Eguneroko klaseak.
- Maila guztiak.

➤ Baldintzak

- Merkatariak %80ko asistentzia eta aprobetxamendua egitaztaten baditu Udalaren beka jaso ahalko du: matrikula kostearen %40.

4.- ERROTULUAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK: ERROTULUAK, EGUZKI-OIHALAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK.

- Euskara hutsez edo elebiz (euskaraz eta gaztelaniaz) idatzitako errotulu berriaren %50 ordainduko dio Udalak merkatariari, gehienez 300 eurotako mugapean.
- Errotuluan izena, pertsona baten deitura edota izen deitura baino agertzen ez denean, ez da dirulaguntzarik emango. Adibidez “MIREN” ipintzen duen errotuluak ez du dirulaguntzarik jasoko, baina “MIREN ZAPATADENDA” ipintzen duenak, bai.

**ARGIBIDE GEHIAGO NAHI BADUZU
UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAREKIN HARREMANETAN JARRI:**

Helbidea: **Euskal Herria plaza 1, 31013 BERRIOZAR**

Telefonoa: **948300359**

E-posta: **euskara@berriozar.es**